

BALIO PROPOSAMENA

Zenbat aldiz esan dizute zure gurasoek dutxatik ateratzeko gehiegi daramazulako? Ba guk sortutako produktuarekin hau bukatu egingo da.

AquaSave dutxa adimenduna da, zure etxeko ur-kontsumoa kontrolatzen eta murrizten laguntzen duena. Jendeak ura eta energia aurreztu nahi ditu, baina erosotasuna galdu gabe, eta hori da gure enpresak egiten duena: dutxan zauden bitartean kontsumoa neurtzen du eta gehiegizko erabilera argi berde batekin abisatzen du. Argi hau piztean dutxa geratu egingo da.

Gure produktuak sentsoare adimendunak eta turbina txiki bat erabiltzen ditu, erabiltzen den ura neurtzeko, uraren kantitatea neurtzeko, kalkulatzeko dugu zenbat litro ur behar dira turbina bira bat egiteko eta horrela, turbinen birak begiratzeko badakigu zenbat ur gastatzen dugu dutxa batekin. Eta energia sortzeko, erabiltzen dugu turbinen birak sistema isolatuta batekin eta horrela energiaren banku batean almagatzeko. Turbina hauek, dutxako alkatxofan daude kokatuta. Beste produktu batzuek datuak soilik erakusten dituzte, baina AquaSave-k neurri automatikoak hartzen ditu gehiegizko erabilera saihesteko ura moztuz. Gainera, mugikorrarentzat aplikazio batera konektatuta dago, kontsumoa denbora errealean kontrolatzeko.

Guri ezberdin egiten gaituena da gure dutxek argi-sentsoare bat dutela: ura gehiegi erabiltzen ari zarenean LED argi batekin abisatzen zaitu, eta argi hori pizten denean, dutxatik ura etetea eragiten du. Gainera, barruan dituen turbinen bidez energia sortzen du, eta horrela argindarra berrerabili daiteke.

Gainera, erabiltzen dugun ur guztia komunerako berrerabiliko dugu. Hau da, ura dutxatik ateratzean tanke batera dijoa eta gero komunerako urean bihurtuko da, horrela, ur kontsumoa aurreztu dezakegu.

Gure konpetentzia; Kohler, American Standard eta Roca dira nagusiki.

Kohler-ek dutxa modernoak, kalitate handiko materialak ditu.

American Standard-ek berriz, esperientzia asko dute.

Eta Roca-k, komunerako produktu mota asko ditu salmentan.

AquaSave-ren abantailak eta elementu bereizgarriak ondorengo hauek dira:

- Teknologia adimenduna
- Turbina txikiak energia sortzeko
- Mugikorraren bidezko kontrola
- Diseinu ekologikoa eta moderno-a

Garapen Jasangarriko Helburuak betetzen saiatu behar gara planeta babesteko, pertsonen ongizatea bermatzeko eta etorkizun jasangarriago bat lortzeko. 2015ean NBE-ak 2030

Agenda sortu zuten, honekin gure planeta hobetzeko eta zaintzeko 15 urteetan zehar hainbat helburu lortzeko proposamena jarri zuten. Eta guk hurrengo helburu hauek betetzen ditugu:



Gure produktuak dituen turbinen bidez energia sortu dezakegu. Energia hau ez da kutsagarria eta jasangarria da. Honekin sortzen dugun energia etxeko gauzetarako erabiliko dugu. Adibidez; etxeko argia, etxe-tresnenezako...



Baliabideen erabilera murrizten saiatzen gara eta horrela gehiegizko kontsumoa murrizten du